

Gauerdia da.
 Ilargi betea*zeru-goian.
 Baso eta inguruetan
 krik-krik-krik... krok-krok-krok...
 txip-txip... txop-txop...

koko eta piztien soinu hotsa*.
 Arnaburu-ko gizona etxera bidean doa;
 ezpanetan kanta-marmaria*eta bihotzean poza daroaz.
 Halango baten dana aldatzen da.
 Ilargi betea ezkutatu egiten da, lainopean;
 koko eta piztien soinu orde
 erostak*entzuten dira.

Ai! Ai! Ai!

Gure gizonaren aienak dira.
 Lurrean dago, min hartuta.
 Zer jazo jakon?

Bideko harri bateaz tupust egin*
 eta jausi dala, ahozpez*jausi ere!
 Zutundueran, hauxe dino hasarratuta:
 – *Inpernuko danganino madarikatuak!*



Esan badau, esan dau ba!...

Krask! Krask! abarrotsa*entzuten dau bere ondoan.

– *Nor dabik hor?* –dino.

Ez deutso inork erantzuten.
 Hurreratzen da, eta

ken hakit!



– AAA! Txiko bat dok!^{da} –dino zaldikume bat ikustean.
 Eta nasaitu egiten da.

– *Ken hakit^{zakidaz} ondotik* –dinotso gero– *aurrera egin daikedan!*
 Ba doa aurrera eta, ene! txikoa atzetik.

– *Bizkorrago joango nok^{noz}* –dino berekautan*.
 Baina zaldikumea beti atzetik.

– *Holangorik!* –dino, susmo txarra harturik.

– *Ken hakit^{zakidaz} ondotik!* –dinotso ostera ere.

Ta hori esanaz

saltoka, ostikoka eta irrintzika hasi jako txiko hori.

Gizonari, bildurraren bildurrez, kaka dario...

eta arineketeari emon deutso.

Zaldikumeak, apatx-urtika*, atzetik darraio*.

Bideak galduta eta burua galdu beharrean*doa gizona;

Zaldikumea, barriz, beti atzerikara*.

Halango baten ilargia agertzen da.

Ilargiaren argitasunaz bidea aurkitzen dau.

Bere etxe ondora heldutean eta adorea harturik

ba dinotso bere buruari

– *Jo egin behar joat^{dot}, jo; sekula gehiago etorri ez dakidan!*

Eta makila bat harturik ba doa emotera, eta

ene! txikoa ahotik sua dariola...

Zer egin? *Dzast!* buru-buruan emon deutso!

Emon, bai... baina, baita txikoa deabru bihurtu ere.

– *Ene, bada!* –esan, eta salto eginik

etxe barruan sartu da.

Etxean, ateak eta leihoak ondo itxirik

ur bedeinkatuaz aitaren egiten dau.

Deabrua tximista baizen*bizkor aldendu zan betiko.

* ilargi betea = luna llena
 * hots = ruido
 * kanta-marmaria = canturreo

* erosta = quejido, lamento
 * tupust egin = tropezar
 * ahozpez = de bruces

* abarrotsa = ruido de ramaje
 * berekautan = interiormente
 * apatx-urtika = arineketa baten

* darraio = jarraitzen deutso
 * galdu beharrean = galdu zorian
 * atzerikara = atzetik

* adorea = valor, ánimo
 * baizen = tan... como...